

Rosi-ri eta Isaac-i

(nire seme-alaba maiteak!)

Kontsultatu hemen gure katalogoa: www.picarona.net

LURRAK ATSEDEN HARTU ZUENEOA

Testua eta irudiak: *Emily House*

1. argitalpena: 2024ko ekainean

Jatorrizko izenburua: *Earth Takes a Break*

Itzulpena: *Iñigo Satrustegi*

Zuzenketa: *Fernando Rey*

Maketazioa: *El Taller del Llibre, S. L.*

© 2020, Emily House

© 2020, Imaginary House

Itzulpenaren eskubideak S. B. Rights Agency-Stephanie Barrouillet

bidez kudeaturik. S. B. Rights Agency-Stephanie Barrouillet

(Eskubide guztiak erreserbaturik euskararako)

© 2024, Ediciones Obelisco, S. L.

www.edicionesobelisco.com

(Eskubide guztiak erreserbaturik euskararako)

Argitalpena: Picarona, Ediciones Obelisco SLren haurrentzako zigilua

Collita, 23-25. Molí de la Bastidako industrialdea

08191 Rubí - Bartzelona - Espainia

Tel.: 93 309 85 25

E-posta: picarona@picarona.net

ISBN: 978-84-9145-730-5

LG B 7344-2024

Gràfiques Martí Berrio, S. L.

c/ Llobateres, 16-18, Tallers 7 - Nau 10. Polígono Industrial Santiga

08210 - Barberà del Vallès - Barcelona

Printed in Spain

Eskubide guztiak erreserbatuta. Argitaratzailearen alde aurreko baimen idatzirik izan

ezean, inork ezin du argitalpen honen inongo parterik –azalaren diseinua

barne– erreproduzitu, biltegitatu, transmititu edo erabili inolako baliabideren bitartez,

haiek elektronikoak, kimikoak, mekanikoak, optikoak,

grabaziokoak edo elektrografikoak izan.

Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, CEDROra jo

(Eskubide Erreproduzikoaren Espainiako Zentroa, www.cedro.org)

LURRAK
ATSEDEN HARTU
ZUENEKOA

Emily House

Behin batean, egiaz, ez oso
aspaldi, Lurra oso gaixo
esnatu zen.

Egunetik egunera gero eta
okerrago zegoen, eta, hala,
medikuarenera joatea erabaki
zuen.



«Zein da ba zure problema?»,
galdetu zion sendagileak Lurrak eseri
bitartean.



«Tira, bolada bat daramat gaixo antzera», erantzun zion Lurrak.



«Batzuetan patata erre bat bezain bero sentitzen naiz, eta arnasa hartu ezinik nabil».

«Ez dut gogoan noiz egin nuen irri azkenengoz, eta, egia esan, nahiko kezkatuta nago».

«Bai, aurpegian nabari zaizu. Ikus dezagun zer duzun», esan zion doktoreak.



Temperatura hartu zion lehenik Lurrari.
«Hara!», esan zuen sendagileak.



Arnasa ere aztertu zion.
«Hara!», esan zuen berriz.



Azkenik, odolaren presioa neurtu zion.

«Ene. Ez zaude batere ongi.

Batere-batere ez», xuxurlatu zion.



Arretan handiz, zirriborro bat egin zuen paper zati batean.

«Honako haxe hartuko duzu lau astez. Zorrotza izan behar duzu».

Lurrak papera hartu eta ongi aztertu zuen.

«Eskerrik asko, baina ez dut ulertzen.

Zer jarri duzu?»



«Atsedena», erantzun

zion medikuak latz. «Lau astez,
gutxienez, atsedena hartu beharko duzu».

Irri egiteko tentazioa izan zuen, erabat zentzugabea baitzen medikuak
agindutakoa. Sendagileak, ordea, ez zuen brometan aritzearen trazarik,
eta Lurrak ez zuen zakarra izan nahi.



Honela esan zion azkenean: «Hori ezinezkoa da. Ezin dut horrelakorik egin. Denek behar naute.»

«Are arrazoi handiagoa atsedena har dezazun», esan zion medikuak.



Etsiturik, Lurrak medikuaren oharra pikutara bidali zuen. Atsedena behar zuen arren, ez zuen ulertzen nola egingo zuen. Gizakiek Lurra behar zuten!